



**GAIXOTASUN LARRIEN ASEGURUA**

**vital**

50 urteko esperientziaren ondoren, badakigu ustekabeak —handiak eta txikiak— gertatu egiten direla. Ez ditugu atsegin, baina gertatu egiten dira. Horregatik sortu dugu gure **gaixotasun larrien** aseguru: benetako egoera zailetan babestuta egon zaitezten.

Hala, ezaugarrietan jaso diren **hamar gaixotasun larrietakoren batek eragindako laneko bajaran** bazaude, eguneko prestazio ekonomiko bat jasoko duzu, kontratatutako zenbatekoaren arabera.



**Ezaugarriak**

- ⌘ **Edonork** kontrata dezake aseguru hau; baina, bereziki, **autonomo eta profesionalentzat dago pentsatuta**; izan ere, istripuak eragindako aldi baterako ezintasunaren estaldurarekin osa daiteke. Batez ere **goi-mailako zuzendariei** zuzenduta dago, diru-sarrerak nabarmen murriztuko bailizkieke haiei baja luze batek.
- ⌘ Eguneko prestazio ekonomiko bat bermatzen dugu, hauetako **hamar gaixotasun larrietakoren batek eragindako lanerako aldi baterako ezintasunagatik**, betiere gaixotasun hori dagozkion proba diagnostikoen bidez behin betiko eta lehen aldiz diagnostikatzen bada eta lanerako ezintasuna eragiten badu: **miokardio-infartua, minbizia edo neoplasia gaiztoa, giltzurrun-gutxiegitasun kroniko itzulezina, bizi-organoen transplantea, esklerosi anizkoitza, arteria koronarioen kirurgia, istripu zerebrobaskularra, parkinsona, 3. mailako erredura larriak eta bihotz-balbulak ordeztea**.
- ⌘ Laneko baja-aseguru honetan **ez dugu frankiziarik aplikatzen gaixotasun larrien** estaldura bakarrerako.
- ⌘ **Istripuen** estaldurarekin osa daiteke aseguru.
- ⌘ Istripu-estaldurarako **aukerako frankizia bat** onartzen dugu (frankiziarik gabeko modalitatea, 7, 15 eta 30 egunekoa).
- ⌘ **2 hilabeteko gabealdia** aplikatzen dugu **gaixotasun larriaren** estaldurarako, baina ez istripuen estaldurarako.
- ⌘ **Eguneko 400 eurorainoko** prestazioa eskaintzen dizugu **gaixotasun larri eta istripuengatik** (arrisku-taldearen gehieneko mugaren arabera) eta **eguneko 300 euroko** gehieneko prestazioa **ospitalizazioagatik**, dela **gaixotasun larriaren** ondorioz dela **istripuaren** ondorioz.
- ⌘ Aseguru kontratatzeko **ez da alde zuzeneko azterketa medikorik egin behar**, nahikoa da osasunari buruzko galde-sorta bat betetzea.
- ⌘ Egun naturalen kopuruaren araberako **kalte-ordaina** eskaintzen dugu. Estaldura **365 egunekoa** da. Gainera, azken kalte-ordainaren **konturako aurrerakinak** eska daitezke prozesu luzeetan.
- ⌘ Laneko baja-aseguru da eta **mundu-mailako estaldura** du. **6 eta 60 urte** bitartekoek kontratatu ahal izango dute.



### Zerga-sistema

- ⌘ **Langileen aldeko gaixotasun-asegurua kontratatzen duten ENPRESENTZAT gastu kengarria da, eta ez langileentzako gauzako soldata**, PFEZren Legearen 42.3.C artikuluan adierazitako zenbatekoetaraino. Artikulu horrek 500 euroko muga finkatzen du urteko eta pertsonako, aseguru langilearen, ezkontidearen eta ondorengoen aldekoa bada.
- ⌘ PFEZ jarduera ekonomikoengatik zuzeneko zenbatespenaren bidez ordaintzen duten **AUTONOMOENTZAT eta PROFESIONAL LIBERALENTZAT** gastu kengarria da haien jarduera ekonomikoan, pertsonako **500 euroraino**, langileari, ezkontideari eta ondorengoei estaldura ematen dieten aseguruetarako (salbu eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietan).



### Esklusioak

- ⌘ Aurreko atalean adierazi ez diren osasun-nahasmendu guztiak.
- ⌘ Aldi baterako ezintasun osoaren aldiak, txandakakoak nahiz ondoz ondokoak, estalita dagoen gaixotasun larria proba diagnostiko osagarrien bidez behin betiko eta lehen aldiz diagnostikatzen den egunaren aurrekoak.
- ⌘ Aseguratzailerak berak ematea zerbitzu medikoak eta kirurgikoak, eta laguntza medikoari eta farmazeutikoari dagozkion gastuak ordaintzea.
- ⌘ **Aurrexistentziak**. Poliza egin aurretik edo haren gabealdian lehen agerpenak izan dituzten osasun-nahasmenduak (kronikoak ala ez), lesioak eta akatsak, nahiz eta aztertze fasean edo tratamenduan egon eta behin betiko diagnostiko zehatzik ez egon.
- ⌘ Edari alkoholodunak hartzeak, toxikomaniak eta suizidio-saiakerak zuzenean edo zeharka eragindako osasun-nahasmenduak eta horien ondorio guztiak. Era berean, lehen arrazoia gaixotasuna edo istripua ez duten eta aseguruak bere borondatez egiten dituen ekintza medikoek edo tratamenduek eragindako osasun-nahasmenduak.
- ⌘ GIBak eragindako gaixotasunak.
- ⌘ Terrorismoak eta energia atomiko edo nuklearrak eragindako osasun-nahasmenduak—salbu eta tratamendu medikoaren ondorioak badira—, ofizialki deklaraturako epidemiak eta ofizialki hondamenditzat deklaraturako beste-lako arriskuak.
- ⌘ Aipaturako arriskuen areagotzeak, ondorioak, konplikazioak eta tratamenduak.
- ⌘ Kontrataziotik **kanpo** geratzen dira lanbide hauek: zirkuko jarduerak\*, txakur-hezitzailea\*, alkatea, udaltzaina, suhiltzailea\*, hargina, kleroa, anbulantzia-gidaria\*, estatuko segurtasun-indarrak, kirolaria\*, etxeko langilea, Renfeko langilea, ikaslea, ferriako saleroslea\*, fiskala, funtzionarioa, urpekaritza-irakaslea, epailea, magistratua, motor bidezko mezularia\*, militarra, meatzaria, kirol-monitore\*, mendiko monitorea gidaria\*, parapsikologoa, zezen-pikatzaila\*, lasterketa-pilotua\*, kirol-irakaslea\*, gorputz-hezkuntzako irakaslea\*, dantza-irakaslea\*, idazkari judiziala, lagun egiteko emakumea, anbulantzia-zerbitzua, soroslea\*, etxeko lanak, ONCEko saltzailea, saltzaile ibiltaria\*.

*\*Lanbide horien estaldura kontratatzeke, nahitaezkoa da gaixotasun larrien estaldura nagusi eta bakarra kontratatuta izatea eta konpainiaren arriskuak hautatzeko areak gainbegiratzea. Istripuen estaldura osagarria ezin izango da ondoren kontratatu.*



### Baldintza bereziak

- ⌘ **Istripuak**. Gaixotasun larriaren estaldura osatu egin daiteke, istripuak eragindako aldi baterako ezintasunaren estaldurarekin: 365 eguneko kalte-ordaina bermatzen du gehienez.
- ⌘ **Gaixotasun larriaren ondoriozko ospitalizazioa**. Gaixotasun larriaren estaldura kontratatuz gero, estaldura osagarri honen bidez eguneko kalte-ordaina bermatuko dizugu, 365 egunekoa gehienez, baldin eta gaixotasun larri baten ondorioz osasun-zentro, ospitale edo klinika batean egon behar baduzu, gutxienez 24 orduz.
- ⌘ **Istripuaren ondoriozko ospitalizazioa**. Istripuaren estaldura kontratatuz gero, estaldura osagarri honen bidez eguneko kalte-ordaina bermatuko dizugu, 365 egunekoa gehienez, baldin eta istripu baten ondorioz osasun-zentro, ospitale edo klinika batean egon behar baduzu, gutxienez 24 orduz.